

# Pando Aisia : Kirolean euskararen erabilera sustatzeko mikro-plana

Hurrengo hila beteetan Pando Aisiako mikro-planaren diagnostiko fasearekin hasiko gara. Horretarako hauek izango dira erabiliko ditugun irizpide zehatzak eta horiek aurrera eramateko jarraibideak.

Ebaluatuko den atala		Ebaluaziorako metodologia	Oharrak
<b>ZERBITZU HIZKUNTZA</b>			
Erakundearen irudia			
1			
1.1			
1.1.1	Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	Behaketa	Kiroldegian dagoen errotulazioa etab. behatuko da eta ebidentziak hartuko dira (argazkiak). Horretarako, beharrezkoa da jakitea zein espaziotan sar gaitzkeen eta zeinetan ez.
1.1.2	Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	Behaketa	Kiroldegiak egiten dituen argitalpenak etab. (logotipoak, eskaintzak, batzar-deiak, gonbidapenak, egutegiak...) ikertuko dira eta ebidentziak hartuko dira. Horretarako, beharrezkoak diren euskarriak eskatu beharko dira.
1.1.3	Ingurune digitala	Behaketa	Kiroldegiak Interneten (webgunetan, sare sozialetan...) darabilen hizkuntza behatuko da, horrelakorik balu.
1.2			Herritarrekiko harremanak
1.2.1	Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia	Behaketa	Inprimakiak, komunikaziorakoak (gutunak...), inprimaki ofizialak, emangarriak (asetasun inkestak...), online zerbitzuak, aplikazio informatikoak eta abarretan erabiltzen den hizkuntza ikertuko da eta, horrekin batera, euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzuna ere bai. Horretarako, dokumentuak eskuratzeko baimena behar izango dugu.
1.2.2	Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana	Elkarrizketa	Harrera, telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak zein hizkuntzatan egiten diren ikertu da. Era beran, euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzuna ere ikertuko da. Horretarako, herritar edo bezeroekin harremanetan dagoen jendearekin (harreragileak, begiraleak, entrenatzaileak, kirol-elkartetako solaskideak) elkarrizketak egingo dira.
2			<b>KONTRATAZIO IRIZPIDEAK</b>
2.1	Kontratazio pleguetako euskararen baldintzak	Behaketa	Kontratazio irizpideak aztertuko dira eta euskarak bertan dituen baldintzak ebaluatuko dira. Horretarako, kiroldegian erabili diren kontratazio pleguak beharko dira beroriek aztertu ahal izateko.
3			<b>KUDEAKETA SISTEMA</b>



Langileen kontratazioa	
3.1	Langileen kontratazioa
3.1.1	Langileen kontratazioetako eta barne-promozioetako hizkuntza-politika
	<b>Foku-taldea</b>
	Langileen euskara gaitasuna eta lanpostuen hizkuntza-beharrak uztartzen direla ikertuko da. Era berean, kontratatuari bere lan-hizkuntza zein den azaltzen zaion eta langileei hizkuntza-politikaren berri eman zaion egiaztatuko da; ea guztiak ezagutzen duten eta badakiten hizkuntza-irizpideek nola eragiten dioten bakoitzari. Horretarako foku-taldea osatuko da eta beharrezkoa izango da langile talde batekin (edo batzuekin) batu ahal izatea, ahal dela, kiroldegiko gela batean.
3.2	Langileen hizkuntz eskakizunak
3.2.1	Langileek dituzten hizkuntz eskakizunak
	<b>Elkarrizketa eta behaketa</b>
	Enpresa publiko batean egon behar duen euskaldun ratioa betetzen ote den aztertuko da. Horretarako, langileen zerrenda behar izango dugu kiroldegian betetzen duten postuarekin eta eskuratu duten hizkuntz eskakizunarekin. Ondoren, ratioarekin erkatuko dira.
4	<b>KANPO HARREMANAK</b>
4.1	Hornitzaile eta erabiltzaileekiko (kirol klubak, elkarteak...) harremanak
4.1.1	Erabiltzaileekiko idatzizko harremanak
	<b>Behaketa eta elkarrizketa</b>
	Kiroldegiak beste entitateekiko harremanetan idatzizko komunikazioan (gutunak, lan-bileretako idatziak, aktak, inprimakiak, komunikazioak, aplikazio informatikoak eta bestelako dokumentuak) erabiltzen duen hizkuntza behatuko da. Beste entitate batek euskaraz bidalitako idatzizko komunikazioei euskaraz erantzuten zaion ere bai. Horretarako dokumentuak eskuratzeko baimena behar izango dugu eta mezuak erantzutearen arduradunarekin elkarrizketa.
4.1.2	Erabiltzaileekiko ahozko harremanak
	<b>Elkarrizketa</b>
	Beste entitateekiko telefono bidezko eta bileretarako harremanetarako hizkuntza zein den ikertuko da. Era berean, beste entitate batek euskaraz hasitako ahozko komunikazioei euskaraz erantzuten zaion aztertuko da. Horretarako elkarrizketak behar izango ditugu lan hauetan dihardutenean.